

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Herriko Unibertsitatearen ekonomia-finantza jardueraren 2008ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena HKEEren osoko kideen gehiengoak onetsi du.

HKEEren iritzira, Unibertsitateak zuzentasunez bete du bertako ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; salbuespen dira, ordea, aurrekontu, langileen gastu eta administrazio kontratazioari buruzko hainbat jokamolde.

Aurrekontuari dagokionez, Epaitegiak 2008ko ekitaldian 5,3 milioi euroko zenbatekoarekin aurreko ekitaldietako kreditu geldikinak txertatu dituela adierazi du, horietarako finantzaketarik izan gabe.

Langileriari dagokionez, osagarri eta ordainsarien berdintze kontzeptuan 4,5 milioi euro ordaindu dira, unibertsitateko irakasleriaren ordainsariei buruzko indarreko legerian aurreikusi gabe daudenak;

Administrazioko kontratazioan honako alderdi hauek gailendu dira: araudian ezarritako esleipen prozedurak saihestuta errentamendua gauzatzea; zerbitzu kontratu baten eta hornidura kontratu baten exekuzioan igoerak izatea, horien bolumen ekonomikoa desitxuratzen dutenak eta dagokion aldaketa izapidetu gabe aurreikusi gabeko gastuen kontratu baten konturako exekuzioa bideratzea.

EHUren Kontuei dagokienez, Epaitegiak uste du horiek egoki erakusten dutela aurrekontuko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondotik adierazitako salbuespen hauekin:

-Batetik, EHUK ez ditu berrikusi Berriazko Geldikina osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugariak eta bestetik, ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko

kontrola eskasa izan da; honek guztiak eragotzi egiten du horren zuzentasunaren gaineko ondoriorik ateratzea.

-Konpromiso Kredituen Egoerak ez ditu geroko ekitaldietarako hitzartutako inbertsioak barne hartzen, 36,9 mila euroko zenbatekoarekin.

-Diruzaintza Geldikina, Berriazko Geldikina eta Gastu Orokorretarako Geldikina, hurrenez hurren, 13,2, 11,9 eta 1,3 milioi eurotan murrizten duten doiketak egin dira.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate eta administrazioko kontratazioaren alorretan.

Txostenak 2006-2010 Urte Askotarako Inbertsio eta Azpiegitura Planari buruzko atal berriazkoa besarkatzen du eta bertan, Planaren, finantzaketa eta administrazioko kontratazioaren gaineko aldaketei buruzko hainbat ondorio jasotzen ditu.

Gauzatutako finantza analisiak erakutsi du % 4 areagotu dela 2008ko ekitaldiaren Eraitza Arrunta, batik bat, irakasle eta ikerlarien ordainsari osagarri gehigarriak finantzatzeko Eusko Jaurlaritzatik eratorritako sarrerek gora egin dutelako. Nolanahi den ere, 2008an Gastu Orokorretarako Geldikina berriz negatiboa izan dela azpimarratu behar da, nagusiki 2009 eta 2010ean kontularitzan erregistratu direlako 2008an erregistratutako gastuak finantzatzen dituzten diru-sarrerak.